



TRATU ONEN MAPA - OIER IURRAMENDI ETXEBERRIA

«Gure helburuetako bat beti izan da Hernaniri ekarpenak egitea»

Zein da KARABELEKO elkartearen ibilbidea?

Karabeleko, 2014an Agifes, Kimu bat eta Blasenearen eskutik sortutako etxalde esperimental bat da. Nekazaritza ekologikoa, ikerketa eta errehabilitazio psikosoziala lantzen ditugu batez ere. Bere sorreratik, buru gaixotasuna duten pertsonen eta bazterte arriskuan dauden beste kolektibo batzuei zuzenduriko errehabilitazio psikosozialerako zentro moduan funtzionatu du. Bestetik, Karabeleko esperimendazio lana burutzen dugun, baratze-zaintza ekologikoaren inguruko ezagutza bultzatze aldera.

Eta zehazki zein da egiten duzuen lana?

Esan bezela, Karabeleko atal ezberdinak ditu, baina denaren erdigunea baratza ekologikoa dela esan genezake. Bertan oinarritzen dira Agifesetik egunero etortzen diren 15-20 pertsonen terapiak, eta baita ikerketako proiektuak ere. Honez gain, kontsumo talde bat eta denda bat ere badugu bertan. Inguruko jate-txe eta jangela batzuei hornitze zerbitzua ere eskaintzen diegu. Azkenik, eskoletako haurrentzat, sukaldaritza eskolentzat eta interesa duten beste taldeentzat bisita gidatuak ere egiten ditugu.

Zergatik animatu zineten "Tratu Onen Mapa" prozesuan parte hartzera?

Azken batean gure helburuetako bat beti izan da Hernaniri ekarpenak egitea. Gure lana ahalik eta gehien gizarteratzen saiatzen gara, jendeak hemen egiten duguna ikus dezan. Zentzu horretan etxalde aurrendaria gara, horrelako beste esperientziarik ez baitago inguru hauetan. Beraz, nik uste dut bete bete bat egiten duela "Tratu onen mapa" prozesuaren filosofia-rekin. Bertan dauden beste ekimenek, bakoitzak bere arloan, ekarpenak egiten dizkio herriari, eta beraz, baita guri ere. Guk ere hala egiten dugula esango nuke.

Herrian daukaguna baloratze aldera, zeintzuk dira egun dauden praktika onak?

Zentzu horretan Hernanik zer esan handia duela esango nuke. Betidanik izan da herri bizia eta hori nabari da herrian martxan dauden hainbat eta hainbat ekimenetan. Bakoitzak bere arloan gauzak ondo egitea da gakoa, eta ondoren herrian modu positiboan eragiten ahalegintzea. Ekimen honek, horretan asko lagundu dezake. Eta proiektu ezberdin askoren artean sinergiak bilatzea ahalbidetuko du.

Eta zuen ustez, eta Tratu Onei dagokionez, zer indartu behar da Hernani mailan?

Guri dagokigunez, buru gaixotasuna duten pertsonen errealitatea herritarrei gerturatu eta gai horren inguruan dauden tabuak eta beldurrak gainditzeko ahalegin bat eskatuko nuke. Bestetik, nahiz eta azken urteetan gauzak mugitzen ari diren, nekazaritza ekologikoa eta bertako produktuaren sal-erosketa bultzatuko nuke. Datozen hilabeteetan ekimen batzuk martxan jarriko dira honen bueltan, eta etorkizun bat marrazten lagundu dezakete.

Nola irudikatzen duzue inklusio eta errehabilitazio psikosoziala, nekazaritza ekologikoa eta aurrera daramatzazuen ikerketak denontzako ona izango den Tratu Onen herri amestuan?

Ikerketak nekazaritza ekologikoa eta lehen sektorea indartzea du helburu, norabide horretan egiten baitira. Eta inklusioari dagokionez, buru gaixotasuna duten pertsonen kolektiboak lan-munduan egiteko asko duela frogatu nahi dugu. Gaur egun bi pertsona ari dira lanean gurekin era normalizatu batean, eta beste askori formazioa eman diegu beste enpresetara bideratu daitezkeen. Guzti hori Hernaniren parte da eta horren inguruko kontzientzia zabaltzea, ekarpen handia dela esango nuke. ||



Oier Iurramendi Etxeberría, KARABELEKO Elkarteko kidea da.

EROTIKAN PLAX - JAVIER LANGARA MARTINEZ

«Ligatzerakoan ez diet "mute" ematen nire barne ahotsi»



Javier Langara Martinez.

Izena: Javier Langara Martinez
Jaio: 1987-08-06
Herria: Donostia
Bizitokia: Egia, Donostia
Lanbidea: Biteriko soinu, argi, ekoizpen eta harrera teknikaria

Mikrofono bat izanez gero, zer aldarritatuko zenuke
Ez naiz sartuko zure buruan, ez sartu zu besteenean!

Jolasa dezibelio askorekin ala isiltasunean?
Tokia eta unearen arabera.

Eszenatoki gainean ikusi duzun obra erotikoa bat?
"The hole" kabareta.

Gorputzeko tekla pizgarriak?
Hozkak sorbaldeetan, bizkarreko laztan-harramazkak eta burua.

SEX-ESALDIA BUKATU...

Desioaren etsaia da...?
(Auto)zentsura.

Jolaserako beharrezkoa da...?
Gogoa.

Unea girotzeko...
Itzalak, ASMR soinua, kolore morea, gorri (pasioa) eta urdinez (hoztasuna) sortua.

Tatxan! Eta orduan...
Jolaserako denbora.

SASIGALDERA

Gomendioaren bat lagun batek haurra izanda bizitza erotikoa indarberritu nahi badu?
Komunikazio garbia, gorputzak eskatutako erritmoei kasu egin eta Plaxlera joateko aukera. ||

Errealitate erotikoa tablatu gainean irudikatu beharko bazenu, zer ikusiko litzateke?

Estereotipatua, regulatua eta merkantilizatua. Fokuren bat ustezko alternatibetan jarriz gero, hauek ere gorputz estereotipatuek antzeztan dituztelarik. Dena abiadura bizian.

Aldatzeko aukera izango bazenu, nolakoa izango litzateke?

Jam session bat, off ahotsekin, pertsonai asko, taula gainean ikusezinak (beren gorputzengatik juiziorik jaso gabe), argi oso baxua. Publiko eta aktoreen artean erritmo aldaketak...

Zerk berotzen zaitu zure lanetik?

Lan honek bere osotasunean jartzen nau. Sorkuntza, jende xelebrea, aniztasun erreala...

Ligatzerakoan zein ahotsi egin behar zaie "mute"?

Ez diot inoiz "mute" eman nire barne ahotsi. Nire baitan "politikoki zuzenaren" filtroa ekiditea da nire estrategia.

Zure bizitza erotikoren etapen soinu banda nolakoa litzateke?

1. Fasea Punk (ezjakintasuna eta aurrera bota); 2. Fasea Jungle (eroa eta drogaz bete); eta azkena "Heroes del Silencio" (haurra izan berri dut eta identifikatzen naiz).

Aita zarella diozu, heziketan sexualitatea landuko duzu?

Zuzena izango naiz gai honekin. Nire beldur handiena hurrengo generazioek dakartenaren aurrean izango dudana jokabidea da.

Biterin ligatzen al da?

Aretoa ez da bereziki ligatzen. Agian zinean izango da xirreren bat...

Eszenatokian, sexualitateak ba al du tokirik?

Dantza garaikedearen saio interesgarriak ikusi ditut, topikoen gainetik. Hala ere, orokorrean oso gutxi. Haurrentzat, oso ikuspegi erromantizista dago orokorrean.

Non jarri behar da fokua Tratu Onetan oinarritutako harremanak eraikitzeko?

Komunizioan eta erritmoetan.

Biteri berritu dute baina, harremanetan erreparatzen al diogu norbere espazioen zainketari?

Badaude esperientzia interesgarriak: nahiz eta bikotean bizi, bakoitzak bere gela, edo noizean behin bereizita lo egitea ... horrelakoak gertutik bizitu ditut.

PLAZERREN PUTZUA

Biteriko aretoan bihurrikieritarako toki interesgarriak?

Aretoa ez da oso eroso, baina oholtza erdi-erdia edo harmailen azpia gomendagarriak dira.

Biteriko zein ekintzetara joango zinake zita batean?

Edozein dantza ikastarora.

Zein musikarekin dantzatzeko zenuke biluzik ekinozio suaren inguruan?

Buru barneko musikarekin.

PLAX! Hernaniko udaleko sexu eta bikote aholkularitza da. Aurrez-aurreko doako arreta zerbitzua ematen dugu. Sandiusterrri 1 zenbakian dugu bulegoa. Hurrengo saioak: **ekainak 7, osteguna (15:30-18:30) eta ekainak 23, larunbata (10:00-13:00)** Hitzordua egiteko: 656 544 606 (deitu edo bidali whatsapp bat), www.hernani.eus/sexu edo [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani)



Neska gazteentzako AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA (doan)

Ekainak 19, 16:00-20:00 Biteri kultur etxean

Izen ematea: ekainaren 15era arte Biterin